

# ❧ Hitz eta Pitz ❧

## Manuel Rivasekin solasean

IÑAKI MENDIGURENEK itzulita

Manuel Rivas Barros (Coruña, 1957) idazle eta kazetari galziarra da.

Galizieraz egin du bere literatura-produkzio gehiena, eta, gaur egun, arlo honetan egile garaikiderik aktiboen eta sarituenetarikoa dugu; eleberriak, poemak eta saioak landu ditu.

Haren zenbait lan zinemara eraman dira: *A lingua das bolboretas* (;*Qué me quieres, amor?*) eta *O lapis do carpinteiro*.

Kazetari moduan, bestek beste *El País* eta *La voz de Galicia* egunkarietan egin ditu kolaborazioak.



**1.** Atseginez gogoratzen dugu *Bala perdida* gazteentzako eleberria. Erraza gertatu zitzaituzun gazteentzat idaztea? Zein izan zen zure esperientzia?

Idaztea, nik ulertzen dudana bezala, ezezagunerantz bidaiatzea da, eta bidaiak hori ikas-kuntza pertsonala da, itzalguneetan –San Joan Gurutzekoak zioen bezala, «baso artean»– bidea urratzeko era bat. Hasieran, *Bala perdida* nik eskola eta ikastetxeetan bisitari gisa aterata nuen ondorio batetik sortu zen. Idazle gisa haur eta ikasle gazteekin izaten nituen topaketa –beti iradokitzaile– haietan «itzalgune» horietako bat aurkitzen nuen, gaur egungo historiari buruzkoa: naziek eragindako holokaustoa eta haiek Espainiako gerra eta ondorengo diktadura ekarri zuten kolpezaleekin zuten lotura estua. Ez dira garrantzi gutxiagoko gaiak gizadiaren historian. Pentsatzen dut antzinako greziarrentzat zaila



izango zela eskoletan ez aipatzea Troiako Gerra. Eros eta Tanatosi buruz hitz egitea, edo heriotzari kendutako bizi zatiez bezala hitz egitea literaturaz... Literaturaz hitz egiten denean, ez dago «garrantzi gutxiagoko» hartzaile edo jasotzailerik. Irakurketa gehiago edo gutxiago egon daitezke, baina harri-garria da gizakiak, haurtzarotik, nola detektatzen duen «literaturaren ahoa». Nire istorio gehienak txinparta txikietatik sortzen dira edo enigma baten deiagatik. Kasu honetan, hasieran helburu bat egon zen: gaur egungo pertsonaiekin abentura bat idaztea, baina atzealde historiko gisa nazismoa eta espainiar diktadura izango zituen. Baina idazten hastean, idazketaren orga abian jartzen denean, orduan jaiotzen dira pertsonaiak; orduan hasten zara pertsonaiak benetan ikusten edo entzuten, beraiek egiten dutenak kezkatu edo dibertitzen zaituenean... Helburua garrantzitsua izan zen bultzada gisa, baina «literaturaren ahoa» bere aldetik doa. Egia da *Bala perdid*a irakurle gazteentzako, baina ez «garrantzi gutxiagoentzako», istorio gisa pentsatua zegoela. Eta nire istoriorik onenetakoa dela uste dut. Ez dago planteamendu xumeago edo bigarren mailakoagorik. Aitzitik, eskakizun berezia neukala sentitu nuen. Musika-hitzetan esanda, inoiz baino hobeto jo behar nuela.

2. Gogoan dugu oso idazle ezagunek ere parte hartu zutela bilduma hartan, nahiz eta emaitza gorabeheratsua izan gero. Behin batean, Saramago *La flor más grande del mundo* aurkezten ari zela Italian, haur batek aitortu zion ez zuela ipuina ulertu, eta idazle portugaldarrak erantzun zion haurrentzat idaztea oso zaila zela eta berak ez zuela berriro egingo. Zure eskarmentutik eta haurrentzako album batzuk idatzi ondoren (*El sombrero Chichiriteiro, Milu*), zein da zure iritzia horretaz?

Egia da haurrentzat idazteak errespetu handia sortzen duela. Beldurra ere bai. Baina beldurra ona da abian jartzeko. Bai *Chichiriteiron* eta bai *Milun*, abandonuaren gaia agertzen da, abandonuarekiko beldurra. Nire ustez, haur-ipuina «klasikoak», eta gaur egun «haur eta gazte» literatura deitzen dugun horren zati handi bat abangoardiako literaturarik onenaren parte dira. Gogoko dut «matxinatu» hitza. Konplexurik gabeko gune bat da, eta hor ez zaie ihes egiten giza egoeraren gai handiei. Adibide bat jartzearen, Espainiako «helduen» kontakizunetan ia ezinezkoa da (lehen) emigratioaren edo (orain) immigrazioaren esperientzia azaltzen duten lanak aurkitzea. Gazteentzako literatura ez da hain konformista...



### 3. Zein izan da zure esperientzia idazle-irudigile tandem horretan?

Egia esateko, ipuinak idazteko arrazoi on bat... hitzekiko anaitasunezko alkimia horretatik sortzen diren binetak edo irudiak ikustea izaten da. Eraitza ez da batuketa hutsa, baizik eta espezie berri bat. Komikia bezalaxe, literaturaren eta irudigintzaren bat-egitea gure garaiko gunerik sortzaileen eta berritzaileenetako bat da.

### 4. Duela urte batzuk Galiziak urrezko urteak bizi izan zituen literaturan: sari nazionalak helduen literaturan, beranduago haur- eta gazte-literaturan, argitaletxeak planteamendu berriekin... Nolabaiteko geldialdia sumatzen ote da orain?

Camões olerkariak «contentamento descontente» egoeraz hitz egiten zuen... Tira, benetan esanda, itsasoarekin gertatzen den bezala, gauza bat da azalean ikusten dena eta beste bat sakonean gertatzen dena. Hitz herrikoi bat «almeiro» da, haziera-leku diren itsas hondoko adierazten dituen. Beste muturrean, ahitze-tokia dago, «Beldur Marka» deitzen dutena. Uste dut sakonean, «almeiro» horretan, sorkuntza-dentsitate izugarria dagoela, begirada emankorren bat-egitea, eta ez literaturan bakarrik... Gertatzen da ez zirkuns-

tantzia politikoak eta ez ekonomiaren uena ez direla «atseginak» galiziarra bezalako kultura baten arnas aparatuentzat. Zorionez, eta ikusiko den bezala, anfibioak gara.

### 5. Zein izan da haur-eta gazte-literaturako klasiko handien eragina zure karreran idazle gisa? Zure *La trayectoria del balón* ipuina (*Ella, maldita alma* ipuin-liburuan sartua) *Altxorraren uhartearen* kapitulu batean oinarritua dago, ala oker gaude?

Egia esateko, nik Dickens edo Mark Twain (baita Txehkov, eta Rulfo, eta Graciliano Ramos, eta Kafka) bezalakoa izan nahi nuke, baina umorista ona den lagun batek esango lukeen bezala, beraiek ez dute nik idazten dudaren errua... Proust-ek bereizi egiten zituen borondatezko oroimena eta beste bat, borondatezkoa ez dena edo emozionala. Bihotzaren aldizkakotasunak. *La trayectoria del balón*en kasuan ez naiz eragin horretaz jabetzen. Benetako bizitzan, hor kontatzen denaren egoera oso antzekoa bizi izan nuen. Eta, alde horretatik, osatu egin behar dut eraginei buruzko erantzuna: «literaturaren ahoak» bizitzan hitz egiten du, ahozko oroimenean, eta ez liburuetan bakarrik.

6. «*La lengua de las mariposas*» kontakizunean maisu apal batez hitz egiten diguzu, bere irakaspenen bidez ikasleen bizitza markatzen duen batez. Izan zenuen haurtzaroan edo gaztaroan zori hori, hots, maitasunez gogoratzen duzun benetako irakasleren bat izateko zoria?

Bai, eta bat baino gehiago. Baten baten zakarkeriak ere zilarbiziak ispiluan duen eragina izaten du eta, gaur egun, komikotasunez gogoratzen dut. Baina izan ditut irakasle onak, bai. Gogoan dut bat, don Antonio, nekez higitzen zena, makuluen laguntzaz, eta hark eskolak eteten zituen Ali-ren (orduan Cassius Clay) borrokak tabernako telebistan ikus genitzan. Uste dut gizon hark irakaskuntza alternatiboan pentsatzen zuela.

7. Idazlearen eginkizunetik, nola ekiten diozu haur eta gazteentzako liburu bati? Irakurle heldu batentzako liburu bati ez bezala heltzen diozu, ala antzekoa da irizpidea?

Charlot-en arlotea ibiltzen den moduan idazten saiatzen naiz. Eta berdin mugitzen da batzuentzat eta besteentzat.

8. Zure liburu eta artikulu asko galizieraz eta gaztelaniaz argitaratzen dira; nola bizi duzu bikoiztasun hori?

Galizieraz idazten dut eta, zorionez, lan asko gaztelaniaz ere argitaratu dira gero. Gehienak beste batzuek itzuliak dira. Baina niri gaztelaniaz idaztea ere gustatzen zait. Hizkuntzak erotikoak dira. *O lapis do carpinteiro* (El lápiz del carpintero) 26 hizkuntzatarra itzulita dago.

9. Zein liburu gomendatuko zenieke Behinolako irakurleei (maisú-andereño, liburuzain, idazle eta abarri)?

Guztion buruan dauden izenburuak ez erre-pikatzearren, hona hemen «beste batzuk»: *Vidas secas*, Graciliano Ramos-ena; *Cómo empezó todo*, Nikolai Bujarin-ena; *Viaje a la transparencia*, Nelly Sachs-ena; *Os biosbardos (Las musarañas)*, Eduardo Blanco Amor-ena; *El canto del cisne*, Anton Txekhov-ena; *El olvido que seremos*, Osvaldo Soriano-rena; *Una soledad demasiado ruidosa*, Bohumil Hrabal-ena; *Puro fútbol*, Roberto Fontanarrosa-rena; *Contos da montanha (Cuentos de la montaña)*, Miguel Torga-rena...

**Manuel Rivas** (*La Coruña*; 1957), es un escritor, poeta, ensayista y periodista gallego. Su obra literaria es extensa y llena de premios de gran importancia. Varios de sus trabajos han sido llevados a la gran pantalla.

En el congreso que se celebró en Santiago de Compostela tuvimos la opción de estar junto a él y poder hacerle la entrevista que viene en estas páginas.

Junto a él charlamos de sus experiencias al escribir para jóvenes, del panorama actual de la literatura gallega, de la manera en que afronta el escribir para jóvenes o para adultos, de sus gustos literarios y sus recomendaciones. . .

Disponible la versión en castellano en [www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)

**Manuel Rivas** (*La Coruña*, 1957) is a Galician writer, poet, essayist and journalist. His literary work is prolific and he has received many awards of great importance. Several of his works have been adapted to cinema.

We had the chance to meet him during the conference held in Santiago de Compostela. He gave an interview which appears on these pages.

We spoke to him about his experiences when writing for teenagers, about the current panorama of literature in Galician, about the way he approaches writing for teenagers or adults, and about his literary tastes and recommendations.

The version in Spanish is available at [www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)

Translated by Sarah J. Turtle